

IKASTETXEA	IES EGA		14-1C-10
IZENBURUA	Hazien Bidaia	MAILA	2.DBH A erdua
IRAKASLEA	Gotzone Agirrezabala	IKASGAIA	Euskara

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

1. ATAZA

TESTUA

Hazien bidaia komikia


**“Hazien
bidaia”**

komikia



6. Atala: Lagun batzuk atzean utzi eta berri bat ezagutuko du Ziklozirkusek bere bidaian. Ez da izango, ordea, izango duen ezusteko bakarra.





JATORRIA	
EGILEA	Joseba Gomez/Josema Carrasco
IZENBURUA	Hazien Bidaia
ARGITALETXEA/Webgunea	Saure
URTEA	2008
ORRIALDEA (K)	18/19/20
ISBN	978-84-95225-84-9
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Papera
FORMATOA	Etena
MOTA	Narrazioa
ERABILERA	Hezkuntzan

ESTRATEGIAK

IRAKURRI BAINO LEHEN

1- Irakurketaren helburuak:

- Testu mota honen egitura ezagutzea.
- Testuaren informazioa ulertu eta eskuratzea.

Horretarako, irakurketan murgildu baino lehen, testuaren egitura zein den begiratzeko esango diegu. Adibidez: izenburua, binetak, komiki banda, eta abar. Ondoren, irakasleak ahoz galdera batzuk egingo dizkie:

- Zer testu mota da hau?
- Gustatzen zaizkizue komikiak?
- Zer izenburu, istorio edota pertsonaia ezagutzen dituzue?
- Irakurri duzu inoiz komikirik euskaraz?

2- Hipotesiak egin:

Edukia aurreratu, izenburuari eta marrazkiei erreparatuz hipotesiak egin:

a) Zer gogorazten dizu izenburuak?

b) Lehenengo orrialdean, irudiak agertzen dira testurik gabe. Ikasleek komikiaren edukiari buruz hipotesiak asmatu beharko dituzte.

3- Aurre-ezagutzak aktibatzea:

Komikiaren egituraren gaineko lanketa (formaren eta egituraren hausnarketa eginez)

- a) Lehenik eta behin, komikiaren ezaugarrietan arreta jartzeko esango diegu, hau da, komikiaren osagaietan (marrazkiak, ikonoak edota ildo narratiboa).
- b) Irakasleak arbelean hurrengo termino hauek idatziko ditu:
 - **Komiki banda**
 - **Globoa**
 - **Bineta**
 - **Onomatopeia**

Ondoren, ikasleek ideia zaparraden bidez zer ulertzen duten adieraziko dute, eztabaida sortuz. Azkenean, denon artean hitzon esanahia argituko da.

- c) Bukatzeko, komikia begiratzen duten bitartean, kontzeptuen birpasa egingo dute.(1)

OHARRAK

(1)

Komiki hau A ereduko 2. DBHko ikasleei zuzenduta dagoenez, beharbada agertzen diren kontzeptuen birpasa egiten lagundu beharko zaie;”**agur egin**”/ “**agurtu**”, “**bizikleta hartu**”, “**nondik**”, “**non**”, “**zamaluzeak**”...

IRAKURRI BITARTEAN

1- Testuaren irakurketa, kontzeptuak eta esamoldeak azalduz:

- a) Gako hitzak azpimarratu eta testuingurua kontuan hartuz, asmatuko dute zer esan nahi duten:”**hazien bidaia**”, “**Ziklozirkus**”, “**ezusteko**”, “**otzana**”, “**kalterik**”, “**ken ezazu**”, “**hitz ematen**”, “**déjà vu**”, “**xelebrea**”, “**haren beldur**”**sekula**”, “**goseak egon**”.

2- **Burutzapen partzialak:** Komikia bere orokortasunean ulertzeko, egitura narratiboari erreparatuz, irakasleak ikasleekin batera burutzapen partzialak egingo ditu;

- a) Ikasleek binakako taldeetan, komikian agertzen den testuaren zergatia galdetu eta narratzailearen papera zehaztuko dute.
- b) Elkarrizketak betetzen duen funtzioaz jabetuko dira.
- d) Narrazioaren hiru atalen gaineko hipotesiak egingo dituzte.

OHARRAK

IRAKURRI ONDOREN

- a) Denen artean komikiaren **osagaien zerrenda** egingo dute eta ahoz bere garrantzia eta funtzioa seinalatu, marrazkiak, testua, elkarrizketa, bineta, globoa, onomatopeiak.....
- b) Amaitzeko, bakoitzak komikiaren laburpena idatziko du

OHARRAK